

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Kultur-ek dantza eta musikako ikuskizunak programatu ditu asteburu honetan Erriberrin, Lizarran eta Altsasun

*Ellas dan la nota, Kukai Dantza eta Larraiza Dantza Taldea ariko dira*

Asteartea, 2016.eko uztailak 12

Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren Kultur programa Erriberrin, Lizarran eta Altsasun izango da uztailleko asteburu honetan, dantza eta musikako beste ikuskizun batzuk eskaintzeko.

Ostegunean, 20:00etan, *Kukai* euskal dantza taldeak "Gelajauziak (Fragments)" obra

eskainiko du Erriberriko Karlos III.a plazan. Ostiralean, uztailak 15, 21:00 etan, Lizarrako San Juan plazan ariko da *Ellas dan la nota* musika-taldea pop, rock, musika zeltiarra eta koplak nahasten dituen kontzertua ematen. Eta larunbatean, uztailak 16, Altsasuko kultur etxean izango da *Larraiza Dantza Taldea* dantza eta antzerkia batuko dituen ikuskizuna eskaintzeko gaueko 21:00etatik aurrera.



Kukai dantza-taldeko ikuskizunaren une bat.

### Kultur Programazioa

Erriberrin, uztailak 14, osteguna: "Gelajauziak (fragments)" Cesc Gelabert koreografoaren eta Kukai Dantza konpainiaren arteko batasunetik sortu da; biak ala biak dantza tradizionalak ikuspegi berri batetik aurkezteko ikertzen aritu dira, lan horretan sakondu dute. Ikuskizun horretan koreografiako hizkuntza original bat erakusten da, indar handikoa, bertakoa eta unibertsala nahasten ditu, tradizioa eta garaikidetasuna.

Lizarra, uztailak 15, ostirala: *Ellas dan la nota* taldeak musika-ikuskizun hunkigarria eskaintzen du, musika-estilo bat baino gehiago tartekatzen ditu: pop-a, rock-a, musika zeltiarra eta koplak. Bi orduko emanaldia da, eta haren barnean multimedia-irudiak sartzen dira. Lau emakume artista eta musika-banda bikain bat.

Altsasu, uztailak 16, larunbata: *Nora Ora Ezean* obran dantzariak eta aktoreak elkartuko dira ikuskizun eder bat eskaintzeko, eta ikus-entzuenezko efektuak ere ikusi ahalko dira.

### Turismoko programazioa

Kultur programa osatzeko, Erriberrin turismo-eskaintza bat antolatu du uztailaren 14rako, eta hari esker, jardunaldi bete-betearekin gozatu ahalko da. Dantza-ikuskizunaz gain, "Artea eta Ardoa" izeneko ordubeteko

bisita gidatuan parte har daiteke. 18:00etan hasiko da Ardoaren museoan, eta 6 euro balio du. Erreserba Guiarte Turismo Zerbitzuetan egin daiteke: 948 741 273 telefono-zenbakian edo [info@guiartenavarra.es](mailto:info@guiartenavarra.es) helbide elektronikoan.

Lizarran ere uztailaren 15ean, ostirala, emango den kontzertua osatu egingo da "Estella Lizarra egindako bisita gidatuarekin"; ordu eta laurden iraungo du, eta 17:00etan hasiko da turismo-bulegoan. 3 euro balio du. Erreserba Navark-en egin daiteke: 948 550 070 telefono-zenbakian edo [visitas@navark.es](mailto:visitas@navark.es) helbide elektronikoan. Gainera, 18:00etan ordu eta berrogei minutuko beste bisita bta programatu da Santo Sepulcro elizan (3 euro). Nahiaz-en erreserbatu behar da (Tel.: 948 107 632 /609 372 816/ 646 245 399).

Azkenik, uztailaren 6an, 21:00etako ikuskizuna osatzeko, Urdian eta Altsasuko hariztietatik zaldi-ibilaldi bat egingo da 10:00etatik 17:30era, Urdiango baserri-errotatik abiatuta. 10 euro balio du. Erreserba Errotain Zaldi Ibilaldiak-en egin behar da (Tel.: 687 424 839/ 626 749 149, helbide elektronikoa: [errotain@gmail.com](mailto:errotain@gmail.com)).